



ARRASATEKO UDALA

**EUSKARAREN KALE ERABILERA**  
**ARRASATEN**  
**1988-2015 ALDIAN**

Euskara Zerbitzua  
Arrasate, 2015eko azaroa

## 1.- Sarrera

Euskararen kale erabilera (Kale Erabilera) da euskararen egoera aztertzeko eta neurtzeko adierazle nagusia, euskararen ezagutzarekin batera, eta bera da, ziur aski, euskararen egoera hobekien islatzen duena. Izan ere, soziolinguistikaren teoria nagusi guztiak bat datoz esatean hitzunen arteko harreman ohikoenak eta gertuenak direla hizkuntzaren bizi indarraren islarik garbiena. Kale Erabilerak, beraz, informazio aberatsa eskaintzen digu hizkuntzaren presentzia sozialaz eta prestigioaz.

Siadecok neurtu zuen lehenengoz Kale Erabilera (1983an), eta orduan erabilitako metodologia –hainbat adituk egindako ekarpenekin hobetuta– erabiltzen da geroztik Euskal Herri osoan egiten diren neurketetan. Euskal Herriko Kale Neurketa, esaterako, metodologia hori erabiliz egiten da. Arrasateko Udalak ere metodologia hori erabiltzen du Kale Erabilera neurtzeko.

1988an egin zuen Arrasateko Udalak lehengo Kale Neurketa, kaleko harreman informaletan euskara ahoz zenbat erabiltzen zen jakin nahi zuen eta. Geroztik urtero egin du Kale Neurketa, metodologia bera erabiliz, eta, beraz, dagoeneko 28 urteko ibilbide luzea egin du.

Kale Neurketak badu ezaugarri bat berebiziko garrantzia duena. Izan ere, Soziolinguistikaren adierazlerik ohikoenak inkesta bidez lortzen diren bitartean, Kale Neurketan behaketa bidez jasotzen dira datuak, zuzeneko behaketa bidez, hain zuzen ere. Zer jasotzen du, bada, Kale Neurketak? Neurketa egin den tokian eta egunean (egunean eta orduan) zenbat lagun ari diren euskaraz eta zenbat erdaraz, hau da, zenbat lagun ari diren euskaraz eta erdaraz une eta leku horretan. Horixe jasotzen du. Aldez aurretik finkatutako ibilbidean zehar neurtzaileek topatzen duen jendeak darabilen hizkuntzaren berri jasotzen dute. Hizketan ari denak ez daki behatua izan denik, eta neurtzaileek haren joera naturala jasotzen dute. Esan gabe doa pertsona batek une batean euskaraz hitz dezakeela eta beste batean erdaraz.

Edonola ere, komeni da datuei neurria hartzea eta berez dutena baino garrantzi handiagorik ez ematea. Kale Erabilerako datuek une jakin bateko hizkuntza egoera islatzen dute eta, datu horiek alderatuz haren bilakaera aztertzeko aukera ematen dute. Beraz, zenbakia, hamarren eta guzti, hau ala bestea dela jakitea baino garrantzitsuagoa da zenbaki horien bitartez islatzen den errealitateaz eta denboran zehar izan diren edo izan daitezkeen aldaketez jabetzea. Bestalde, esan beharra dago ez dela erraza Kale Erabilerako datuak interpretatzea eta ondorio garbiak ateratzea, eta, sarri askotan, lan hipotesi moduan ulertu behar direla.

## 2.- Metodologia

Arrasateko Kale Neurketaren helburua da kaleko harreman informalean euskara ahoz zenbat erabiltzen den jakitea, eta behaketa zuzena da hartarako erabiltzen den metodologia. Hau da, neurtzaileek (AED elkarteko Gazte Saileko kideak) kalean entzundako elkarrizketak zein hizkuntzatan dauden jasotzen dute. Bildutako datuak, beraz, ez dira inkesta bidez lortzen. Neurketaren momentuan kalean dabilen jendeak erabiltzen duen hizkuntza jasotzen dute neurtzaileek, zuzenean, ezertxo ere galdetu gabe. Horrela, neurtzaileek ibilbidean zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen dute, horretarako prestatutako fitxetan.

Bestalde, neurketa objektibo exhaustiboa da erabiltzen den teknika. Neurketaren esparrua Arrasate da eta unibertsoa bi urtetik gorako arrasatearrak. Lagina unibertsoaren %100 ingurukoa izaten da. Laginketa mota, berriz, estratifikatua, adin taldearen arabera. Neurketak bost urteko datuak biltzen ditu. Sasoi berean eta baldintza berdinetan egiten dira beti neurketak. Urtean lau neurketa aldi izaten dira: asteazken arratsaldean, ostiral arratsaldean, larunbat eguerdian eta larunbat arratsaldean. Auzoka biltzen dira datuak, auzo bakoitzean ibilbide jakin bat eginez beti neurtzaileek. Datuak bost urteko aldietara biltzen dira, eta horrela bost urtealdi bakoitzeko Kale Erabilerako indizea lortzen dugu.

Leku itxietara –taberna, denda, atari eta zinemetara, esaterako– ez dira sartzen neurtzaileak. Hortaz, bada, neurketa aldiak kalean dauden pertsonen zein hizkuntza darabilten baino ez dute adierazten neurketako datuek: zenbat elkarrizketa izan diren euskaraz eta erdaraz, alegia.

Kale Erabilera aztertzean aldagai bakarria hartzen dugu kontuan: adina. Beste aldagai batzuk, hala nola, generoa, haurren presentzia edo auzoa ez ditugu aintzat hartzen.

## 3.- Kale Erabilera Arrasaten egun

Arrasateko Kale Erabilera %32koa da, 2011-2015 aldiak egindako neurketetan jasotako datuen arabera, hau da, kalean neurtutako 100 elkarrizketatik 32 euskaraz izan ziren; eta gainerakoak, erdaraz (gaztelaniaz edo beste hizkuntzaren batean).

Bestalde, 1. taulan ageri den moduan, 2-14 urteko haurrak dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak (%48), alde handiarekin gainera. Gutxien erabiltzen dutenak, herriko erabileraren batez bestekoaren oso azpitik, ostera, adineko pertsonak dira (%16). Gazteek helduek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz kalean: (%42 eta %28, hurrenez hurren). Egun, beraz, zenbat eta gazteago izan orduan eta gehiago erabiltzen dute euskara kalean arrasatearrek.

## 1. taula: Kale Erabilera Arrasaten 2011-2015 aldian

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
Kale Erabilera 2011-2015	48	42	28	16	32

Iturria: Arrasateko Udalak 2011-2015 aldian egindako neurketetako datuak erabili ditugu Kale Erabileraren adierazle moduan. Datuak %tan daude.

Haurrak: 2-14 urte    Gazteak: 15-24 urte    Helduak: 25-64 urte    Adinekoak: 65 urte edo gehiago

Aldi horretan, guztira, 18.843 pertsonaren elkarrizketetako datuak jaso ditugu. Lortutako lagina, beraz, herriko biztanleriaren %85 ingurukoa da. Behatutako elkarrizketa kopuru horrek emaitzen fidagarritasuna bermatzen du, eta, hortaz bada, lortutako datuek oinarri sendoa dute laginaren tamainari dagokionez.

## 4.- Kale Erabileraren bilakaera Arrasaten 1988-2015 aldian

Kale Erabilera ez da urtetik urtera aldatzen den adierazlea, eragiten dioten faktoreen ondorioak eta tokian tokiko erakundeen hizkuntza politikaren emaitzak epe ertainera edo epe luzera islatzen dira eta. Hortaz, bada, horregatik eta euskararen ezagutzari buruz EUSTATEk ematen dituen datuak bost urtean behin jasotzen direlako, Kale Erabilerari buruzko datuak bost urteko aldietara bildu ditugu, era egokiagoan aztertzeko. Dagoeneko aldi hauetako datuak dauzkagu: 1988-1990, 1991-1995, 1996-2000, 2001-2005, 2006-2010 eta 2011-2015.

## 2. taula: Kale Erabileraren bilakaera Arrasaten (1988-2015)

	1988-90	1991-95	1996-00	2001-05	2006-10	2011-15
Kale Erabilera	14	22	30	31	32	32

Iturria: Arrasateko Udalak 1988 eta 2015 bitartean egindako neurketetako datuak erabili ditugu Kale Erabileraren adierazle moduan. Datuak %tan daude.

Kale Erabilerak bilakaera positiboa izan du Arrasaten 1988-2015 aldian, %14tik %32ra pasatu da eta (ikus 2. taula). Hau da, Kale Erabilera bikoiztu baino gehiago egin da aldi horretan. Bilakaera, ordea, ez da beti berdina izan. Lehendabiziko neurketa aldietan hazkundera handia izan zen: 1988-2000 bitartean Kale Erabilera %14tik %30era pasatu zen. Azken neurketetan, ordea,

hazkundera moteldu egin da, ia gelditzeraino: 2001-2015 bitartean 2 puntu baino ez da hazi, %30tik %32ra igo da eta.

Arrasateko datuak Gipuzkoakoekin eta Euskal Herrikoekin alderatuz gero, nabarmentzekoa da oso desberdina dela Kale Erabilerak hiru eremu horietan izan duen bilakaera (ikusi 3. taula). Izan ere, hiruretan hazi bada ere, Arrasaten hazi da gehien. Aldea zerk eragin duen aztertzeke, erabilera/ezagutza korrelazioa aztertu dugu. 1986-2015 bitartean korrelazio hori zertxobait aldatu da Gipuzkoan eta oso gutxi Euskal Herrian. Arrasaten, berriz, korrelazio hori 33tik 57ra pasatu da. Bere horretan hazkundera handia da. Baina, 1988-2015 bitartean halako bilakaera positiboa izan badu ere, Arrasateko erabilera/ezagutza korrelazioa gaur egun Gipuzkoakoaren azpitik dago eta Euskal Herrikoa baino pixka bat handiagoa baino ez da. Hortaz, bada, zein da ateratzen den ondorioa? Bada, garbi dago 1988an Arrasateko Kale Erabilera oso txikia zela, bere ezagutzarako, eta orain, aldiz, bere ezagutzari dagokion erabilera mailara hurbiltzen ari dela.

### 3. taula: Kale Erabilera eta ezagutza Arrasaten, Gipuzkoan eta Euskal Herrian

Erabilera/ezagutza	Arrasate	Gipuzkoa	Euskal Herria
<b>1988-1990</b>	<b>33</b>	<b>53</b>	<b>48</b>
Kale Erabilera	14	23	11
Ezagutza (1986)	43	43	23
<b>2011-2015</b>	<b>59</b>	<b>62</b>	<b>46</b>
Kale Erabilera	32	33	13
Ezagutza (2011)	54	53	28

Iturria: Arrasateko Udalak 1988-1990 eta 2011-2015 aldietan egindako neurketetatik atera ditugu Arrasateko erabilerari buruzko datuak. Gipuzkoakoak eta Euskal Herrikoak, berriz, EKBk 1989an eta SEIk 2011n egindako Euskal Herriko Kale Neurketatik hartu ditugu. Ezagutzaren adierazle moduan EUSTATEk 1986an eta 2011n egindako erroldako datuak erabili ditugu. Datuak %tan daude.

Adin talde bakoitzaren erabileraren bilakaerari erreparatuz gero (ikusi 4. taula), orain arte egindako neurketa guztietan hurrak izan dira beti (lehenengo neurketa aldian izan ezik) erabilera mailarik handiena izan dutenak. Gainera, asko hazi da euren erabilera: %23tik %48ra pasatu da. Gazteen erabilerak ere oso hazkundera handia izan du urteotan, haurrena baino gehiago hazi da, %12tik %42ra igo da eta. Helduak, berriz, euskara oso gutxi erabiltzetik Arrasateko batez besteko erabilera mailara hurbildu dira. Adinekoek, berriz, gero eta erabilera txikiagoa dute, duela urte batzuk kalean euskaraz gehien hitz egiten zutenak eurak baziren ere.

#### 4. taula: Kale Erabileraren bilakaera adin taldeka Arrasaten (1988-2015)

Aldia	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
1988-1990	23	12	11	25	14
1991-1995	36	19	17	27	22
1996-2000	42	33	23	22	30
2001-2005	46	41	28	25	31
2006-2010	48	36	32	25	32
2011-2015	48	42	28	16	32

Iturria: Arrasateko Udalak 1988-2015 aldian egindako neurketetako datuak. Datuak %tan daude.

Datuen hurrenkera hori, ordea, ez da beti berdina izan. 1988-2000 aldian honela sailkatu zen adin talde bakoitza: adinekoak (%25), haurrak (%23), gazteak (%12) eta helduak (%11). Azken neurketak, berriz, hurrenkera hau eman du: haurrak (%48), gazteak (%42), helduak (%28) eta adinekoak (%16). Euskararen normalizazioaren ikuspegitik, oraingo datu hurrenkera askoz hobea da lehengoa baino.

#### 5. taula: Kale Erabilera Arrasaten, Gipuzkoan eta Euskal Herrian

Hazkundera	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
<b>Arrasate</b>	<b>109</b>	<b>250</b>	<b>156</b>	<b>-36</b>	<b>129</b>
1988-1990	23	12	11	25	14
2011-2015	48	42	28	16	32
<b>Gipuzkoa</b>	<b>44</b>	<b>118</b>	<b>53</b>	<b>-19</b>	<b>43</b>
1989	34	17	19	27	23
2011	49	37	29	22	33
<b>Euskal Herria</b>	<b>27</b>	<b>63</b>	<b>33</b>	<b>-29</b>	<b>18</b>
1989	15	8	9	14	11
2011	19	13	12	10	13

Iturria: Arrasateko Udalak egindako neurketetatik atera ditugu Arrasateko datuak. Gainontzekoak, berriz, EKBk 1989an eta SEIk 2006an egindako Euskal Herriko Kale Neurketatik. Datuak %tan daude.

Alderatu ditzagun berriro ere Arrasateko datuak Gipuzkoakoekin eta Euskal Herrikoekin (ikusi 5. taula). Lehen begiratuan, ondorioa garbia da: Kale Erabilera gehiago hazi da Arrasaten Gipuzkoan eta Euskal Herrian baino eta hori adin talde guztietan gertatu da adinekoen taldean izan ezik. Horretaz gainera, garbi ikusten da, normalean besterik uste izan bada ere, gazteen erabilera beste taldeena baino gehiago hazi dela bai Arrasaten zein Gipuzkoan eta Euskal Herrian.

Azkenik, Debagoieneko hainbat herrirekin alderatu dugu Arrasate (ikusi 6. taula. Aztertutako lau herrietatik bitan Arrasaten eta Oñatin Kale Erabilerak gora egin du; beste bietan (Aretxabaletan eta Bergaran), berriz, egonkor mantendu da. Gainera, Aretxabaletan haurren erabilerak behera egin du, eta Bergaran hutsaren hurrengo hazi da. Bestalde, adinekoen erabilerak behera egin du bailarako herri guztietan, baina batez ere Bergaran. Horretaz aparte, helduen erabilera oso gutxi hazi da Aretxabaletan, eta behera egin du Bergaran. Azkenik, Arrasaten hazi da gehien Kale Erabilera, adin tarte guztietan, bailarako daturik txarrenak Arrasatekoak izan arren.

## 6. taula: Kale Erabilera Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin

Hazkundera	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
<b>Arrasate</b>	<b>109</b>	<b>250</b>	<b>156</b>	<b>-36</b>	<b>129</b>
1988-1990	23	12	11	25	14
2011-2015	48	42	28	16	32
<b>Aretxabaleta</b>	<b>-22</b>	<b>21</b>	<b>8</b>	<b>-35</b>	<b>0</b>
1990	69	43	36	60	44
2008	54	52	39	39	44
<b>Bergara</b>	<b>5</b>	<b>125</b>	<b>-5</b>	<b>-58</b>	<b>3</b>
1988	55	20	38	62	40
2011	58	45	36	26	41
<b>Oñati</b>	<b>25</b>	<b>117</b>	<b>44</b>	<b>-16</b>	<b>33</b>
1989	67	36	36	63	48
2011	84	78	52	53	64

Iturria: Arrasateko Udalak egindako neurketetatik atera ditugu Arrasateko datuak. Gainontzekoak, berriz, EKBk 1989an eta SEIk 2011n egindako Euskal Herriko Kale Neurketatik. Datuak %tan daude.

## **6.- Ondorioak**

Gorago esan bezala, aurreko datu zaparradatik garrantzitsuena joerak antzematea da, gure kaleetako errealitate soziolinguistiko konplexua eta euskararen erabileraren nondik norakoak ulertze aldera. Hona hemen, bada, ondorio nagusiak:

### **1.- Positiboa izan da Kale Erabileraren bilakaera Arrasaten 1988-2015 aldian**

Aspaldiko 28 urteotako datuak ikusirik, positiboa izan da, oro har, Kale Erabileraren bilakaera Arrasaten, gero eta gehiago erabiltzen baita euskara gertuko harreman informaletan. Azken 15 urteotan, ordea, hutsaren parekoa izan da erabileraren hazkundera.

### **2.- Zenbat eta gazteago izan orduan eta gehiago erabiltzen dute euskara arrasatearrek**

Haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta, gainera, duela urte batzuk ez bezala, txikia da haurren erabileratik gazteen erabilerara dagoen jauzia. Egun euskararen normalizazio bidean egon daitekeen datu hurrenkerarik onena lortu da (haurrak>gazteak>helduak>adinekoak): zenbat eta gazteago izan orduan eta erabilera handiagoa. Bestalde, esan beharra dago, hezkuntza sistemak egindako lanari esker eta familia bidezko euskararen transmisioari esker, haurrena eta gazteena direla adin talde euskaldunenak ezagutzari dagokionez. Helduak dira, ordea, bere ezagutza mailarako, euskara gehien erabiltzen dutenak.

### **3.- Etorkizunari begira iragarpena ez da guztiz baikorra**

Itxura guztien arabera, Arrasateko Kale Erabilerak hazteari utzi dio. Izan ere, erabilera egonkortuta dago edo beheranzko joera du adin talde guztietan. Beraz, erabilera sustatzeko neurririk hartu edo zerbait egin ezean, ikusteko dago aurrerantzean oraingo mailari eusteko gai izango den.